



gure HAURRA



HANDITZEN ZENBATZEN ABESTEN

(0-2 URTE)



gure
HAURRA



Zuen haurra iritsi da etxera. Zorionak Donostiako Udalaren Euskara Zerbitzuaren partez!

Esku artean duzun liburuxka honetan hainbat gauza jasotzeko aukera izango duzue haurrak bi urte egin arte, beraren inguruko hainbat oroigarri, esperientzia eta datu: pisua, altuera, bere lehenengo hortza, hitza, argazkiak, lau hankatan eta oinez noiz hasi den ibiltzen...

Era berean, haurrarekin batera kantatzeko eta jolasteko abesti batzuk ere aurkituko dituzue.

Erabiltzen erraza eta zuen gustukoa izatea espero dugu.

Vuestro bebé ya está en casa. Enhorabuena de parte del Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián!

Con la ayuda de este pequeño libro que tenéis en vuestras manos podréis ir reuniendo recuerdos, experiencias y datos en torno a vuestro hijo/a hasta que cumpla los dos años: peso, altura, su primer diente, su primera palabra, fotos, sus primeros pasos...

También encontraréis una serie de canciones para jugar y cantar con él o ella.

Esperamos que os guste y os sea de utilidad.

Guraso

EUSKALDUNAK BAZARETE / EUSKALDUNA BAZARA

- **Etxean**
Familia da euskara ikasteko modurik naturalena, errazena, merkeena eta eraginkorrena. Gurasoen eta helduen artean euskaraz arituz gero, haurrak euskara baliozko tresna dela ikusiko du txiki-txikitatik.
- **Euskarazko irakaskuntza**
Eskolan hasi behar duenean euskarazko irakaskuntza aukeratuz gero, antzeko maila lortuko du euskaraz eta gaztelaniaz.

- **Euskara haurraren bizitzaren arlo guzietan**

Hasiera batean familia da umearen erdigune. Denboran aurrera egin ahala, ordea, bestelako eragileak agertuko dira (zaintzaileak, haur eskolak, lagunak, aisialdia...) eta horietan guzietan ere euskarak bere lekua izan dezan saiatzea garrantzitsua da.

- **Motibazioa eta interesa**

Haurrak euskaraz egiteko ohitura har dezan bideak jartzea eta bere ahalegina babestea eta indartzea oso mesedegarria da. Horretarako garrantzitsua da haurrak jolasteko eta ikasteko erabiliko dituen ipuin, joko, musika, telebista eta abarretan ere euskarak presentzia izatea.

- **Hizkuntza gaitasuna**

Hasieran haurrarekin ahozko harremana izaten da gehienbat. Ondoren, pixkanaka, idatzizkoa ere izaten da, etxeko lanak egiten laguntzeko, adibidez. Haurarentzat lagungarri izango da zuek euskaraz alfabetatuta egotea, eta zuentzat, berriz, oso esker onekoa.

Gurasoetako batek

EUSKARA BALDIN BADAKIZUE

- **Etxean**

Kasu honetan gurasoetako bakoitzak umeari dakien hizkuntzan egitea komeni da, modu horretan haurra etxetik elebiduna izango baita. Guraso euskaldunak umearekin euskara erabiltzea garrantzitsua da hizkuntza transmititzeko biderik naturalena, errazena, merkeena eta eraginkorrena delako. Garrantzitsua da, era berean, euskaraz ez dakien gurasoak hizkuntzarekiko jarrera ona eta interesa agertzea.

- **Euskarazko irakaskuntza**

Eskolan hasi behar duenean euskarazko irakaskuntza aukeratzen baduzue, antzeko maila lortuko du euskaraz eta gaztelaniaz.

- **Euskara haurraren bizitzaren arlo guzietan**

Hasiera batean zuek izango zarete umearen erdigune. Denboran aurrera egin ahala, ordea, bestelako eragileak agertuko dira (zaintzaileak, haur eskolak, lagunak, aisialdia, ...) eta horietan guzietan ere euskarak bere lekua izan dezan saiatzea garrantzitsua da.
- **Motibazioa eta interesa**

Haurrak euskaraz egiteko ohitura har dezan bideak jartzea eta bere ahalegina babestea eta indartzea oso mesedegarria da. Horretarako garrantzitsua da haurrak jolasteko eta ikasteko erabiliko dituen ipuin, joko, musika, telebista eta abarretan ere euskarak presentzia izatea.
- **Hizkuntza gaitasuna**

Haurra izatea bultzada ezin hobea izan daiteke euskara ez dakien bikotekidea ikastera animatzeko. Bikotekide euskaldunarentzat, berriz, aberasgarria izango da euskaraz alfabetatuta egotea, adibidez, umeei eskolako lanak egiten laguntzeko.

si tú o tu pareja

SABÉIS EUSKERA

- **El euskera en casa**

Conviene que le habléis en el idioma que dominéis y así podréis conseguir que sea bilingüe a una edad temprana. Es muy importante que quien sepa euskera se comunique con el niño o la niña en euskera, porque es la forma más natural, rica, efectiva y económica de transmitir una lengua. Así mismo, es conveniente que quien no lo sepa muestre una actitud positiva y de interés hacia el euskera.

- **La enseñanza en euskera**

Si optáis por la enseñanza en euskera, garantizareís que adquiera un nivel de conocimiento similar en euskera y en castellano.

- **El euskera en los ámbitos del niño o de la niña**

La familia no es el único medio de transmisión del euskera. Con el tiempo además de la familia tendrá otro tipo de referentes: cuidadores, educadoras, monitorado de tiempo libre... Es importante que el euskera esté presente en todos ellos.

- **Motivación e interés**

Es importante animar y reforzar el proceso de aprendizaje y el hábito de uso del euskera. Para ello es conveniente proporcionarle productos de ocio (cuentos, juegos, música, televisión, etc.) en euskera.

- **Aprendizaje del euskera**

Tener un hijo o una hija puede ser el incentivo que necesitamos para animarnos a aprender euskera y además nos ayudará a utilizarlo de forma natural. Para quien ya sabe euskera puede ser, así mismo, un incentivo para alfabetizarse y poder así ayudarle en las tareas escolares.

si desconocéis o desconoces

EL EUSKERA

- **Un modelo rico y adecuado**

Conviene que se transmita al bebé el idioma que mejor se domine, que se le proporcione un modelo rico y adecuado. No hay de que olvidar que cuanto mejor domine el idioma materno, más fácil le será la adquisición de otros idiomas en el futuro.

- **El euskera en los ámbitos del niño o de la niña.**

La familia no es el único medio de transmisión del euskera. Con el tiempo, además de la familia tendrá otro tipo de referentes: cuidadores, escuela infantil, ocio.... Es importante que el euskera esté presente en todos ellos, pues cuanto menos euskera tenga en casa, más necesita fuera de ella.

- **La enseñanza en euskera**

Si se opta por la enseñanza en euskera, se garantizará que adquiera un nivel de conocimiento similar en euskera y en castellano.

- **Motivación e interés**

Conviene que el euskera sea para el bebé una lengua cercana y conocida desde un principio. No podréis transmitirle el euskera, pero sí el interés y aprecio por él. Para ello es conveniente facilitarle productos de ocio en euskera (cuentos, música, juegos, vídeos, televisión, etc.).

- **Aprendizaje del euskera**


Tener un hijo o una hija puede ser el incentivo que necesitamos para animarnos a aprender euskera y además nos ayudará a utilizarlo de forma natural.

IZENA

ABIZENAK

JAIOTERRIA

JAIOTEGUNA




ORDUA

PISUA

Kg.

NEURRIA

cm.



KAX-KAX... HEMEN NAGO!



NIRE LEHEN ARGAZKIA

O-3

HILABETE

15 EGUN

| | |
|---------|--|
| EGUNA | |
| PISUA | |
| NEURRIA | |

1. HILABETEA

| | |
|---------|--|
| EGUNA | |
| PISUA | |
| NEURRIA | |

2. HILABETEA

| | |
|---------|--|
| EGUNA | |
| PISUA | |
| NEURRIA | |

BAZEN BEHIN

IZENEKO HAUR BAT



O-3

HILABETE



ESKUAK ETA OINAK DITUT!



EGIN BARRE, KUTTUNA!


4-6 HILABETE

4. HILABETEA


| | |
|---------|--|
| EGUNA | |
| PISUA | |
| NEURRIA | |

6. HILABETEA

| | |
|---------|--|
| EGUNA | |
| PISUA | |
| NEURRIA | |



*SENDA, SENDA, MINA,
MUXU OILO MINA,
SENDA, SENDA, MINA,
JOAN DA IZENA (R)EN MINA.*



4-6 HILABETE



ZER IKUSI, HURA IKASI.



PLISTI PLASTA!

7-9

HILABETE

9. HILABETE

| | |
|---------|--|
| EGUNA | |
| PISUA | |
| NEURRIA | |





*DAGOENEAN BONBON,
EZ DAGOENEAN EGON.*

7-9
HILABETE



ELKARREKIN BAZKALTZEN DUGU!



ÑAN ÑAN MMMMM...

10-12
HILABETE

12. HILABETEA

| | |
|---------|--|
| EGUNA | |
| PISUA | |
| NEURRIA | |



GOIZ JAIKIA GOIZ GOSE,
BERANDU JAIKIA LOAZ ASE.

ZORIONAK



GAUR

ZORIONAK ZURI,
ZORIONAK BETI
ZORIONAK (IZENA)
ZORIONAK BETI.



10-12
HILABETE



TTIPI-TTAPA NABIL



ZIZTU BIZIAN NOA!

13-15
HILABETE



NEGARRA ETA PARRA,
SAGU ZAHARRAREKIN EZKONDU BEHARRA.



DONA DONA KATONA
SUTONDOAN AITONA
LEPOTIK BEHERA KUTTUNA
ATERA DADILA KANPORA
NESKA EDO MUTIL TUNTUNA!

13-15
HILABETE



JANTZI... ERANTZI



MOZORROTU NAIZ!

16-18
HILABETE

18. HILABETEA

| | |
|---------|--|
| EGUNA | |
| PISUA | |
| NEURRIA | |



BOST ZENTIMETROKO PUPUA,
HAMAR METROKO TRAPUA.



A ZER PAREA: KARAKOLA ETA BAREA!

16-18
HILABETE



ZER HANDIA NAIZEN!



ARTISTA BAT NAIZ NI

19-24

HILABETE

24. HILABETEA

| | |
|---------|--|
| EGUNA | |
| PISUA | |
| NEURRIA | |



NOLAKO ZURA, HALAKO EZPALA.

ZORIONAK

!

GAUR

ZORIONAK ZURE URTEBETETZEAN,
ZORIONAK TA URTE ASKORATAKO,
ZORIONAK BELARRITIK TIRATZEAN,
ZORIONAK TA MUXU BAT ZURETZAKO!



19-24
HILABETE



The background features four white circles with green dotted borders, each containing a grey camera icon. The circles are arranged in a staggered pattern across the frame. The background consists of soft, overlapping green and yellow washes.

NI




MAITE
NAUTENAK






ZER MUXU GOXOAAAA!



PAAA!




KOSK-KOSK





NI BAKARRIK!

TTIPI-TTAPPA



NOIZ:



HIZKETAN HASI NAIZ!



NOIZ:



KIXXI-KAXXA

KIXXI-KAXXA, KAXKAMOTZ!






ZENBAT ZEN

JIRAF A HORI BAT

1



2



BI TXIMINO MARROI

3




HIRU
PINGUINO
URDIN ILUN


4




LAU KATU LARANJA



ZAZPI TXORI ARROSA



7



8

ZORTZI SAGUTXO GRIS

9


BEDERATZI ARRAIN URDIN

10

HAMAR

TXIMELETA

BERDE ARGIA



ABESTEN



Lo... Lo...

*Haurtxo polita sehaskan dago
zapi zuritan txit bero.*

Amonak dio, ene potxolo!

Arren egin ba lo, lo!

Amonak dio, ene potxolo!

Arren egin ba lo, lo!

*Txakur handia etorriko da
zuk ez baduzu egiten lo.*

Horregatik ba ene potxolo!

Egin agudo lo, lo, lo

Horregatik ba, ene potxolo!

Egin agudo lo, lo, lo.

Paristik Natorren

*Paristik natorren artista bat naiz ni.
Paristik datorren artista bat haiz hi.*

*Ondo jotzen dut! baita guk ere!
Danborra nik jotzen dut! Pron, pron, pron,*

Paristik natorren...

*Biolina nik jotzen dut! Tiriri, tiriri,...
Pron, pron, pron*



Paristik natorren...

*Turuta nik jotzen dut! Tururu, tururu,...
Tiriri, tiriri,... Pron, pron, pron,*

Paristik natorren...

*Txindata nik jotzen dut! Txindata, txindata,...
Tururu, tururu,... Tiriri, tiriri,... Pron, pron, pron,*

Paristik natorren...

*Tronboia nik jotzen dut! Pra, pra, pra,...
Txindata, txindata,... Tururu, tururu,...
Tiriri, tiriri,... Pron, pron, pron,*

Pintto

*Pintto, Pintto
gure txakurra da ta
Pintto, Pintto
bere izena du.*

*Zuri-beltza da ta
ez du koska egiten
begi bat ixten du
jolastu nahi badu.*



Arre arre mandako

*Arre arre mandako
bihar Tolosarako
etzi Iruñerako
handik zer ekarriko?
zapata ta gerriko!
hura zeinentzako?
zuretzako!*



Eragiozu

*Eragiozu eskutxoari
eskutxo txiki polita horri.*



*Eragiozu burutxoari,
burutxo txiki polita horri.*

*Eragiozu hankatxoari,
hanka txiki polita horri.*

Kinkirrinera

*Ala kinkirrinera
ala xamurrera
(izena) plaza berriko
jira hadi beste aldera!*



Ran rober ran

*Uztaik gora gora
lurretik zerura
jira alde batera
ta gero bestera
ta behera, behera, behera
ta behera, behera bai
uztai barruan preso
gelditu naiz orain!*

*Ran rober ran, po, po, po, po, po, po, po,
ran rober ran, po, po, po, po, po, po.*





*Xoxoak galdu du mokoa,
mokoa galdu du xoxoak gaixoa...*

*Nola kanta, nola txirula,
nola kanta xoxoak?*




Sagarra mantzana

*Sagarra mantzana,
ikatza karbon,
mujer andria
ta hombre gizon.*

*Xanti, Xanti, Xanti, txiribi txiribitetro,
Xanti, Xanti, Xanti, txiribi txiribiton,
txin pon!*

Ikusi ikusi han...

*Ikusi ikusi han
teilatu gainean
kriston aberea
triziklo gainean
tronpa du aurrean
isatsa atzean
ja, ja, ja, ja
elefantea da!*



*Astoak aja-ja
txakurrak uau-uau!
oilarrak ku-ku-rru-ku!
katuak miau-miau!*



*Eta kanta, kanta, kanta, kantari;
eta dantza, dantza, dantza, dantzari.
Eman, eman, eman bai danborrari,
eman, eman, eman bai turutari..*

*Gaur arratsaldean abere denak
menditik zelaira etorri dira. (bis)*

Eta kanta, kanta...



*Astoak ostikoz, zakurrak hozka,
oilarrak mokoka, katuak zarpa!*

Eta kanta, kanta...



*Astoa beheraka, zakurra gora,
oilarra hegan, katua jiran. (bis)*

Eta kanta, kanta...



Txoriak: txio-txio

Astoak: aja-ja

Zerriak: kurrin-kurrin

Oilarrak: kukuruku

Behiak: muuu

Katuak: miau

Txakurrak: au-au



epo itai tai ye!

Epo itai tai ye!

Epo itai tai ye!

Epo itai tai epo

ituki tuki epo

ituki tuki ye.



Sorgiha pirulina

*Sorgina pirulina
erratza gainean
ipurdia zikina
kapela buruan.*


*Sorgina, sorgina
ipurdia zikina!
Tentela zara zu?
Ezetz arrapatu!*



Sorgina pirulina...

Xagu txiki

*Xagu txiki, xagu maite,
zulotxoan gorde zaitez.
Zapik ikusten bazaitu
kris kras jan egingo zaitu.
Ez nau jango!
Jango zaitu!*





www.euskaragida.net

* Euskarazko produktuen gida aldioro eguneratzen da.

WWW

web gune interesgarriak

- www.emangiltza.com
- www.guraso.com
- www.ttiklik.com
- www.aisia.net/jolasak

*HALA BAZAN
ETA EZ BAZAN
SAR DADILA
KALABAZAN!*

*...ETA ATERA DADILA
HERRIKO PLAZAN!*



gure
HAURRA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Euskara

